

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Hesiak jartzea eta lurzatiak ixtea arautzen duen zerga ordenantza aldatzea

Guardiako Udalak, 2016ko uztailaren 14an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen onartzea hesiak jartzea eta lurzatiak ixtea arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko proposamena, eta, azkenean, 5. artikulua aldatu zen, eta honela geratu zen idatzita:

5. artikulua. Lurzoru urbanizaezina

Eremu hau dagokio indarrean dagoen hirigintza araudiak urbanizaezintzat jotzen duen lurzoruari.

Eremu horretan, bihurtura bakuneko sareko edo txarrantxazko itxiturak baizik ezingo dira erabili, gehienez ere 2,00 metro artekoak. Inguruan hobeto integratzearren, sareari berdez margotuta emango zaio amaiera, eta zutoinak zurezkoak izango dira, edo berdez margotuta amaiera emandakoak. Hesia zimendatzeko edo bermatzeko elementuak ezingo dira agertu lursailaren sestratik gora.

Debekaturik daude itxitura elektrifikatuak, basabereen elektrokuzio arriskua badakarte, beren neurri, garaiera, intentsitate eta boltajea dela-eta.

Debekaturik daude, orobat, batetik bestera ibiltzea eragozten duten itxiturak.

Aho batez erabaki da hasierako onarpena ematea lurzatien hesiak eta itxiturak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketa horri, eta, Toki Araubidearen Legearen 49. artikulua xedatzen duenari jarraituz, jendaurrean jartzen da, hogeita hamar eguneko epe batez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egoki deritzeten alegazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Bat etorritik indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin, behin betiko onartuko da ordenantza, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada, eta haren testua ALHAOn argitaratuko da.

Guardia, 2016ko abuztuaren 4a

Alkate-lehendakaria

J. PEDRO LEON GARCIA DE OLANO